

MOKO eta KAPMELE



2004ko aurrekontuaren zirriborroa ia prest

Datorren urteko aurrekontuaren behin betiko zirriborroa laster prest izan nahi du Udal Gobernuak. PSE-EEko zinegotziek ezohiko bilera egin zuten joan den asteartean, hilak 16, zirriborroa aztertzeko, eta datozen egunetan dokumentua findu eta onartuko dutela jakinarazi zuen Odon Elorza alkateak. Gogoan izan Udal Gobernuak duela hilabete inguru hainbat datu eman zizkiela udal taldeei, 2004ko aurrekontuetan zehaztu beharreko inbertsioei buruzko proposa-

menak egin zitzen. Udal Gobernuak jakinarazi zuen aurrekontu osoa 240 milioi euro ingurukoa izango zela, pilatutako zorra 155 milioi euroko dela eta aurreikusitako diru sarrera arruntak 181 milioi eurokoa. PPK, EAJ-EAK eta EB-IUK ez zuten proposamenik aurkeztu, proposamenak egiteko informazioa falta zutela argudiatuta.

Gauzak horrela, Udal Gobernuak bera egiten ari da zirriborroa eta datozen egunetan aurkeztuko du. "Zirriborroari ha-

mar eguneko epean emango dio argi berdea Udal Gobernuak. Ondoren, eztabaida saioak egingo dira oposizioko taldeekin", adierazi digu Andoni Huegun alkatezako prentsa buruak. Ildo horretatik, bai PP eta bai EAJ-EA akordioa bilatzeko prest agertu dira, baina ez dirudi negoziazioak urtea amaitu baino lehen hasiko direnik.

Orain prestatzen ari diren zirriborroaren arabera, 2004ko aurrekontua 270 milioi eurokoa litzateke, eta haietatik 64 inbertsioetara bideratzea aurreikusi du Udal Gobernuak. Zirriborroan jaso dutenez, inbertsioen atalean, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko bederatzi milioi euro bideratzea aurreikusi dute; besteak beste, Morlans, Auditx-Akular eta Loiolako ibaiertzean egin nahi dituzte etxebizitzok. Kultur azpiegiturei dagokienez, Aquariumerako, San Telmo museorako, Victoria Eugenia antzokirako eta Tabakalerarako aurreikusitako kopuruak aipatu behar dira: milioi bat eta erdi euro, milioi bat euro, 381.000 euro eta 80.000 euro, hurrenez hurren. Auzoen zaharberitzeari buruz, Loiola eta Alzako Eskalantegi aipatu behar dira: 5 milioi euro bideratu nahi ditu haietara Udal Gobernuak. Bestelako inbertsioak ere badira: lur azpiko zaborrontziak ipintzeko, 80.000 euro; Zuhaztiko igerilekuak hornitzeko, 606.000 euro eta igogailuak eta eskailera mekanikoak jartzeko, 420.000 euro.

